



BARREN

TOKIKOM



Zuretik ezpala



Fermin Arrese Arizmendiarieta

2021eko apirilaren 8an hil zen, 91 urte zituela.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.***

EGOTOKI ELKARTEA



Fermin Arrese Arizmendiarieta

2021eko apirilaren 8an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.***

Familiakoak



X. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

***10 urte pasa dira,
baina zu beti gure bihotzetan zaude.***

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



X. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

***Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir ezta
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.***



Haren oroimenez X. urteurreneko meza izango da,
domekan, apirilaren 25ean, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Ilusioa eskegi

teko. Eta orduan hantxe begiesten dut bart ganean, edozein modutan kateatuta, edota edozein eratan bil-bil egondako 'askatasun zapia' pertsianako ka-koetatik eskegita. Gehienetan, ez dit lan handirik ematen preso egondako trapua askatzeak. Izan ere, bakar-bakarrik ez bada, haizeak lagunduta, oso ondo ikasi du bere leloa lau haizetara itxuroso zabaltzen. Hala eta guztiz ere, inoiz eguraldiaren txarrak kuzkurtzen baldin badu, hotza dela, euria dela, ikurraren ertzetatik tiratu, eta betiko itxura harroa hartzen du. Gainera, gure askatasun ikurra ez dago bakarrik, badu lagun gehiagorik. Aurrez-aurrezko etxeetan beste bi daude, eta horrek laguntzen dio elkarren arrimuan presoeren egoeraz txutxu-mutxuka aritzen, eta, gaur egun, oraindik Euskal Preso Po-

litikoen Kolektiboko 217 preso (gizonezkoak, 185 / emakumeak, 32) daudela elkarri gogorarazten: 28 Euskal Herrian espetxeratuak, 161 espainiar estatuko 36 espetxetan, 27 frantziar estatuko 6 espetxetan. Tamaina horretako erritualak baino potoloagoak egongo dira; hori ez dut zalantzan ipintzen. Eta horretarako, Espainiako Errege Kopako Bartzelona eta Athleticeen arteko lehiari balkoietan eskegitakoari erreparatzea besterik ez dago ikusteko jende askori futbolaren sentimenduek zer nolako kilikilia eragiten dioten. Baina niri ilusio handia egiten dit presoeren aldeko ikurra eskegita ikusteak. Gainera, laguntzen dit egunerokoa alaiagoa egiten, beraiengandik gertuago egoten, eta gertukoaren sufrimendua gogorarazten. Eta zuri?

Bizitza erritualetan beteta dago. Nork bere erritualak ditu, gainera. Egongo da ohe kidea musu gozoz batez esnatuko duenik, txakurra goizean goiz txiza egitera aterako duenik, edota gauza biak egingo dituenik. Ni ohetik altxatu, eta oraindik begiak erdi itxita ditudala, ondoko logelara propio joaten naiz, eta pertsianako uhalari eusten diot gora egiteko, egunsentiaren argi motela etxean sartzeko, eta egunari ongi etorria emar-

*“Ilusio handia egiten dit presoeren aldeko ikurra eskegita ikusteak.
Laguntzen dit egunerokoa alaiagoa egiten”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MORKAIKO MENDIZALE TALDEARI

Morkaikoren kamiseta batzuk eros- teko asmoa neukan, baina asmo hori ezi- nezkoa bihurtu da. Joan naiz mendi taldearen bulegora sei edo zazpi aldiz asteazkenetan, bulego ordutegi barruan, baina inoiz ez dut inor aurkitu bertan. Te- lefonoz eta e-postaz ere ahalegindu naiz harremanetan jartzen, baina ez dut eran- tzunik jaso. Zer egin dezaket Morkaiko- ren kamisetak erosteko? Zuzendaritzako edo mendi taldeko norbaitek mezu hau irakurtzen badu, jarri dadila nirekin ha- rremanetan, mesedez andres@outlook.es edo 665 716 243 telefonoan. Eskerrik asko.

Andres Arizmendi Etxaniz

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak... .
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitz argitaratuko.



Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
 Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



I. URTEURRENA
Ioseba Arrizabalaga
Mendikute
 "Iriarte"
 2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.



Beti egongo zara
gure bihotzetan.

Familiakoak



Debemenek 54.905 euro jasoko ditu 2021ean Elgoibarko Udaletik, landa eremuko ekintzetarako



Elgoibarko Udalak eta Debemenek 2021erako lankidetzahitzarmena sinatu dute, eta horri esker, 54.905 euroko dirulaguntza jasoko du landa garapenerako elkarteak Udaleko hirigintza, kultura eta sustapen ekonomiaren sailetatik. 30.800 euro urtean zehar Elgoibarren egiten den *Baserrikoa* ekimenera, hilabeteroko ferietara edo Trinitate jaietako larunbatero Nekazaritza eta Abeltzaintza Feriara bideratuko dituzte, besteak beste. Era berean, gainerako 24.105 euroak baserri bideetako arekak garbitzeko eta bide ertzetako sasiak mozteko lanetara bideratuko dituzte. Bestalde, Debemeneko bazkide gisa, Udalak 2021ean 25.865 euroko ekarpena egingo dio elkarteari honek Elgoibarren zein bailara mailan egiten duen jarduna balioan jarri eta indartzen jarraitzeko.

Apirilaren 26an zabalduko dute Mendaroko udalekuetan izena emateko epea

Mendaroko Udalak, Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean, udalekuak antolatu ditu HH2tik LH6ra arteko umeentzat. Ekainaren 21etik uztailaren 16ra izango dira, eta bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa, ekainaren 21etik uztailaren 2ra, eta bigarrena, uztailaren 5etik 16ra. Txanda bakarra edo biak aukeratu ahal izango dira. Izena emateko epea apirilaren 26tik maiatzaren 9ra artekoa izango da. Izena emateko esku-orria udaletxean, liburutegian edo ludotekan eskuratu daiteke. Informazio gehiago: 943 033 282 - 685 720 010 telefono-etan edo kultura@mendaro.eus helbidean.



'Establezimendu Lagunkoia' egitasmoan parte hartu duten establezimenduek lagunkotasun zigilua jaso dute

Establezimendu Lagunkoia kanpaina jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak martxoan, adinekoen beharrak kontuan hartuta, establezimenduei adinekoak erakartzen laguntzeko praktikak eskaintzeko eta dendak adinekoekin lagunkoia izateko. 30 establezimenduk parte hartu dute *Establezimendu Lagunkoia* kanpaina, eta eguaztenean lagunkotasun zigilua jaso zuten. Hauek izan dira partaideak: Amaia fruta-denda, Arauri lurrindegia, Armueta harategia, Arrillaga inprenta, Bidezko merkataritza elikagaiak, Casa Astigarra Gys Sport kirola, Cristina Garcia estetika, Ecenarro lenteria, Eizagirre okindegia, Farmazabal parafarmazia, Ferpi moda, Ibarrenea okindegia, Ipintza pinturak, Iría moda, Irune botika, Jose Antonio ileapaindegia, Jubilatuen taberna, Kala loradenda, Kima bioestetika, Lagunak ehungintza, Mariam fruta-denda, Mekanosa paperdenda, Natenzon hartz klinika, N°1 en zapatillas oinetakoak, Pitxintxu liburu-denda, Sara fruta-denda, Sarasketa ortopedia, Surya belardenda, Txilarre Ekodenda eta Ziarda harategia. *Establezimendu Lagunkoia* ekimenen parte hartu nahi duten saltokiek elgoibarlagunkoia@elgoibar.eus helbidera idatzi behar dute.



Hamasei proiektu izango dituzte bozkatzeko elgoibartarrek, 2021eko aurrekontu partehartzaileen bigarren fasean



Partaidetza bidezko aurrekontuetako bigarren fasea abian da, eta herritarrek 16 proiekturen artean gogokoenari botoa emateko aukera izango dute orain. Lehen fasean proiektuak aurkezteko aukera izan zuten herritarrek, eta Udaletik jakinarazi dutenez, 231 proposamen aurkeztu zituzten ehun herritarrek. Proposamenek iragazki tekniko bat gainditu dute bigarren fasera igarotzeko, eta hamasei proiektu lortu dute hori. Aurreko bi ekitaldietan moduan, Elgoibarko Udalak 200.000 euro bideratuko ditu herritarrek aukeratzen dituzten bost proiektuak gauzatzeko. Apirilaren 25era bitartean eman daiteke botoa, eta horretarako, hautestontziak jarriko dituzte Aita Agirreko sarreran, Jubilatuen Biltokian, Herritarrentzako Arreta Bulegoan, Olaizaga kirolegian eta Merkatu Plazan. Etxeetara banatutako eskuorria beteta bertan entregatu behar da. Online ere aukera egongo da botoa emateko, www.elgoibar.eus atarian.

- ◆ Udalerriko eserlekuak eta lorategiak berritzea: 18.500 euro.
- ◆ Udalerriko barandak pintatzea eta egokitzea: 18.500 euro.
- ◆ Santa Ana - San Roke arteko tunelaren pareta pintatzea: 48.000 euro.
- ◆ Santa Ana kaleko aparkalekua zolatzea: 115.000 euro.
- ◆ Herri Eskolaren eta Urazandi kalearen arteko bidea hobetzea: 50.000 euro.
- ◆ Santa Klarako kantxa berriz zolatzea: 75.000 euro.
- ◆ Mendi ibilbideak sortzea eta hobetzea: 18.500 euro.
- ◆ Anbulatorioaren eta Kirolegiaren arteko egurrezko zubian zoladura aldatzea: 60.000 euro.
- ◆ Arregitorreko pasealekua hobetzea (pista arrosa): 65.000 euro.
- ◆ Txakurren aisiarako eremua sortzea: 24.000 euro.
- ◆ Skate Parkeko ingurunea eraberritzea, harmailak sortuz, tiro-lina bat jarritz...: 60.000 euro.
- ◆ Basarteko tenis pista eraberritzea: 28.000 euro.
- ◆ Giza Eskubideen parkeko haur-parkea estaltzea: 40.000 euro.
- ◆ Haurrentzako parkea sortzea Pedro Mugurutza 8an: 50.000 euro.
- ◆ Bide publikoan tratamendu ez-labaingarriak aplikatzea: 18.500 euro.
- ◆ Santa Ana kaleko sarrerako fatxadan horma-irudia egiteko ideien-lehiaketa antolatzea: 30.000 euro.

Udaberriko merkataritza kanpaina jarri dute abian Mendaron

Tokiko merkataritza eta kontsumoa bultzatzeko helburuarekin udaberriko merkataritza kanpaina jarri du martxan Mendaroko Udalak. Galle-tiak, Farmazia, Leire, M^a Axun, Perosanz, Puxika, Lutximak, Itxasertz, Anton, Coviran, Art Fruit, Saint Gerons eta Morroskillo dendek hartuko dute parte. Maiatzaren 12ra bitartean komertzio horietan 15 euro edo gehiagoko erosketak egiten dituzten bezeroek zozketa tiket bat jasoko dute, eta bederatzi sari zozkatuko dituzte kanpainen partehartu duten bezero guztien artean. Lehen saria jasotzen duenak Ederki-Lutximak-ek emandako bi zerbitzutan 50 euroko deskontua eta parte hartzen duten 12 establezimenduetan erositako 50 euroko produktuak jasoko ditu. Beste zortzi sari ere banatuko dituzte: kanpainen parte hartu duten dendetan gastatzeko 50 euroko deskontu bonuak. Horiek uztailaren 31a baino lehen erabili beharko dira. Udaberriko kanpainarekin batera, maiatzaren 15erako Merkataritzaren Eguna antolatu dute. Bigarren eskuko azoka eta herriko zenbait dendek postuak jarriko dituzte Goñati pilotalekuan, 11:00etatik 14:00etara bitartean.



Bihar amaituko da Zaporeak elkarteak sustatutako janari bilketa solidarioa

Greziako Lesboseko kanpalekuko errefuxiatuei otorduak eman ahal izateko janari bilketa solidarioa sustatu du Zaporeak elkarteak Debabarrenean, eta bihar izango da elikagaiak emateko azken eguna. Elgoibarri Pedrosillano motako garbantzuak biltzea egokitu zaio, baina umeentzako pardelak eta emakumeentzako konpresak ere jaso nahi dituzte Lesbosera eramateko. Bilketa-gunea Merkatu Plazan jarri dute, lehen Udal Euskaltegia egon zen lekuan. Honakoa da janariak jasotzeko orduetgia: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Zaporeak Proiektuaren barruan, egunero 1.500 otordu prestatzen dituzte Lesboseko errefuxiatuentzat.

Elikagaiak biltzeaz gain, tupper solidarioa ekimena egingo dute bihar, Ermuan. Dilistak bakailaoarekin eta arroz a oilasko lumagorriarekin sartuko dituzte tupperrean eta fruta pieza bat ere salduko dituzte 5 euroan. Ermuko Orbe plazan izango da, 14:00etatik 15:00etara. Era berean, errifak ere jarriko dituzte salgai, eta batzen duten diru guztia Lesbosera bidaliko dute. Zortzi afari zozkatuko dituzte, Debabarreneko jatetxeetan. Aurrekoiez gainera, diruz lagundu nahi duenak, Caixabank-eko ES53 2100 2724 8101 0066 3988 kontu korrontean sar dezake dirua.



Oier Etxaniz lagun artean oroitzeko batuko dira bihar, Bolatokian



Urtea beteko da bihar Oier Etxaniz hil zela, eta urteurren hori baliatuko dute haren gertukoek, lagunartean oroitzeko. Bolatokian batuko dira bihar, 12:00etan, Oierren lagunak eta etxeok, eta besteak beste, Porrotx pailazoak ere hartuko du parte ekitaldian. Oier Etxaniz informatikaria zen, eta azken urteetan boluntario lanetan aritu zen Aspanogin minbizidun haurrak entretenitzen. EHUko ikertzailea zen, eta minbizia ikertzen ari zen hainbat onkologorekin elkarlanean. Era berean, *Itsasoan barrena* liburua argitaratu zuen Aspanogi elkartearekin. Musika zuen zaletasun, eta saxofoia jotzen zuen Udal Musika Bandan eta Mautitxa txarangan.

Langabeziak gora egin zuen martxoan Elgoibarren zein Mendaron

Langabe kopurua eta langabezia-tasa bere horretan mantendu dira martxoan Debabarrenean, baina datuak desberdinak dira herrika. Hala, eskualdeko hiru herritan egin du gora langabeziak: Elgoibarren, Mendaron eta Soraluzen. Martxoaren amaieran 539 langabe zeuden Elgoibarren, otsailean baino hamalau gehiago, eta Mendaron, 93 langabe zeuden erregistratuta enplegu bulegoetan, aurreko hilean baino hamabost gehiago. Soraluzen ere gora egin du langabeen kopurua, aurreko hilean baino lau gehiago zenbatu dituztelako. Aldiz, Eibarren eta Mutrikun behera egin du langabeziak. Kopuruari begiratuta, hamasei langabe gutxiago kontabilizatu dituzte Eibarren eta hemezortzi Mutrikun. Debak berdin eutsi dio. Hona hemen Debabarreneko martxoko datuak, herriz herri: Eibar 1.665 (%13,07), Elgoibar 539 (%9,75), Mendaro 93 (%9,40), Deba 193 (%7,24), Mutriku 216 (%8,12), Soraluze 262 (%13,98). Debabarrena eskualdean 2.968 langabe zenbatu zituzten, eta %11,22koa da langabezia-tasa.

Heriotzaz berba egiteko saioa antolatu dute hilaren 27rako

Heriotzari buruz berba egiteko Death cafe izeneko topaketa antolatu du Almur elkarteak apirilaren 27rako. Antolatzaileek argi utzi dute ez dela doluan laguntzeko saio bat, eta euren asmoa ez dela inolako ondorioak ateratzea. Heriotzaz berba egiteko saioa izango da soilik. Koronabirusaren ondorioz, plazak mugatuak izango dira, eta antolatzaileek eskatu dute izena emateko ondorengo telefonoan: 627 117 819 (Iñaki). Covid-19 protokoloak zehazten dituen babes neurri guztiak hartuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek. Saioa Kultur Etxean izango da, 19:00etatik 20:30era.



Galdutako plazen esperoan



Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako azkeneko ikasturtea du hau Hodei Ezpeletak (Mendaro, 1999), eta erizain lanetan ari da Eibarren Uxue Ansozregi (Mendaro, 1995), baina herri kiroltarako afizioak batzen ditu. Aitaren bidea jarraitu du Hodeik. 7 urterekin irten zen es-treinakoz plazara aizkoran egitera, eta Lehenengo Mailan lehiatuzetik pauso batera dago oraintxe. Uxue Ansozregik, berriz, 18 bat urterekin egin zuen lehenengo plaza, proban. Geroztik, sokatiran, trontzan eta aizkoran aritu da, eta ekainaren 20an, Emakumezkoen Pentatloian leihatuko da Karmele Gisasola lagun hartuta. Mendaroarrak izanda biak, umetatik ezagutzen dute elkar eta badute elkarren ibilbidearen berri. Pandemiak urrundtu ditu plazatik, saio ofizialak ez diren beste guztiak bertan behera geldituko zaizkielako, baina gogor ari dira entrenatzen, garai hobeen esperoan. Bideoa ikusteko: barren.eus

- AINARA ARGOITIA -

▶ UXUE ANSORREGI HERRI KIROLARIA ETA PENTATLOIKO LEHIAKIDEETAKO BAT



◆ Trontzan, giza proban, aizkoran, txinga eroaten... Zer ez duzu probatu zuk, Uxue! Nondik datorkizu herri kiroltarako afizio hau?

Aitarengandik. Gure aita oso herri kirol zalea izan zen beti, oso plaza zalea. Txinga eroaten ibili izan zen bere sasoiaren, baina herri kirol guztiak zituen gustuko. Eta nik umetatik bizi izan nuen hori.

◆ Lehen bultzada hori etxean jaso zenuen hortaz. Zailena zer egin zaizu?

Aita zalea zen, eta afizioa harengandik jaso nuen, baina nire erreferente nagusia Florentino Larrañaga herrikidea izan da beti. Dena eman didate Florentinok eta haren koinatu Bixente Olazabalek. Erremintak Florentinok laga izan dizkit beti probatzeko, materiala ere bien artean inguratu izan didate, eta plazara ere eurek bultzatu ninduten.

◆ Egiguzu zure ibilbidearen errepasso bat.

Giza proban hasi nintzen lehenengo, Batxilergoa egiten nenbilen garaian, eta sokatira probatu nuen ondoren. Gero, trontzarako deitu ziguten Nerea Arrizabalaga nutrikuarrari eta bioi, ez zegoelako Emakumeen Gipuzkoako Trontza Txapelketa antolatzeko behar beste bikote. Eta halaxe hasi nintzen duela zazpi bat urte, sokatira taldetik ezagutzen nuen lagunarekin. Florentinorengana jo nuen, eta haretzek eta Bixentek erakutsitakoa da nik trontzaz dakidan guztia. Zenbat entrenamendu, zenbat haserre eta zenbat poz bizi izan ditugun Irabane baserrian. Nerearekin txapelketa hartara aurkezteaz batera hasi nintzen mutilaguna dudanarekin [Mikel Agirre] entrenatzen ere, txapelketa mistorako.

◆ Gusturuen zertan aritzen zara?

Trontzan, ondoen ere trontzan moldatzen naizelako.

◆ Eta orain, azkena, aizkorari ere kolpe egin diozu.

Oraintxu arte jolasa izan da niretzat aizkoran egitea. Ez naiz serio jardun, trontzan bezala. Mutilaguna ere aizkolaria da eta entrenatzen ibili naiz harekin batera, baina aparteko ganora handirik gabe. Karmele Gisasola herri-kirolariaren osaba Jesusekin, Zelai II.arenekin, hasi nintzen en-

trenatzen. Astean behin joaten nintzen Mallabira, entrenatzera, baina, gero Zaragozara joan nintzen Erizaintza ikastera eta bertan behera laga nuen dena. Eta etenaren ostean, aurten hasi naiz berriro aizkoran, Pentatloirako prestatzeko. Gauza guztiei kolpe egin diet beti, baina inon ez dut aparteko ezer egin. Gauza asko gustatzen zaigunok horixe daukagu.

♦ **Pentatloia begiz jota daukazu orain, baina zeintzuk izan dira zure orain arteko lorpen nagusiak?**

Duela bi urte Trontzako Bizkaiko Txapelketa mistoa irabazi genuen mutil-lagunak eta biok. Handia izan zen, denbora luzean jardun ginelako horren bila, baina beti herren. *Ezina ekin ez gina* esaera du euskarak eta horixe izan da gurea ere. Txapelketa hori irabazi izanak Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketara joateko txartela eman zigun iaz, eta han izan ginen, Bizkaia ordezkatzeko. Iaz, estreinakoaz parte hartu genuen emakumeok Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketan. Bestalde, iaz jokatzekoa zen Bizkaiko Txapelketa Mistoa aurten jokatu dugu, eta irabazi egin dugu.

♦ **Pentatloirako izena eman baduzu, gauza askotan moldatzen zaren seinale!.**

Ez pentsa. Karmele Gisasolarekin bikoitza osatuta aurkeztuko naiz Pentatloira eta ari gara entrenatzen, [Jose Antonio Gisasola *Zelai* harri-jasotzaile ohiaren alaba da Karmele. Harri jasotzen zein ingudean zenbait txapel jantzi ditu]. Astean behin entrenatzen naiz aizkoran, Karmeleren amamaren baserrian, Mallabin, eta beste bi egunez entrenatzen naiz harri jasotzen. 63 kiloko harria sekula altxatu gabea nintzen aurrez, eta teknikarik ere ez nuen, bistan da. *Zelai* baserrian entrenatzen naiz, *Zelai-luzerekin*. Korrika-saioak eta gimnasioko lanak ahal ditudan unetan egiten ditut. Halako zerbait prestatzeko horretara bakarrik egon behar da, baina nik lana egiten dut eta lanetik kanporako orduak ez dute ematen. Erizaina naiz Eibarren, eta koronabirusaren kontu honekin orduak ere pilatzen zaizkigu, eta zer esanik ez nekea. Libre dauzkadan ordu guztiak eskaintzen dizkiot kirolari. Ez da erraza egia esan, eta hemendik eskerrak eman behar dizkiot Mikeli, bera dudalako babes handiena guzti honetan.

♦ **Zerk bultzatu zaituzte Pentatloirako izena ematera?**

Karmelerengana jo zuten antolatzaileek emakumezkoen Pentatloia sortu nahi zutelako esanez eta hark aitarengana bidali zituen. Zelai baietza eman zuen eta emakume bila hasi ziren. Azkenean sei emakume parte hartuko dugu, bikoteka, baina ez da batere erraza izan hiru bikote osatzea. Garazi Arruti eta Lucia Orbe bizkaitarrek osatuko dute beste bikote bat eta Segovia eta Burgos aldeetik etorriko dira Claudia Muñoz eta Julia Martinez.

♦ **Ardura berezia sentitzen duela aitortu berri du Gisasolak, baina bere amonak ez zuela aukerarik izan plazan aritzeko eta hargatik eta beste emakume guztiengatik plazan jarraituko duela berak. Zer sentitzen duzu zuk?**

Herri kirola beti izan da gizonzkoen mundu bat, eta kartela osatzeko hasi zitzaizkigun guri deika plazarako. Ikuskizuna emateko gizonak deitzen zituzten, eta gu, itxurak zaintzeko edo gizonen atsedena hartzeko tartea emateko. Eta horrek beti eman izan digu zer pentsatua. Erreferenteak ere falta izan ditugu guk. Oso emakume gutxi ikusi ditugu plazan, eta plazaratzeko pausoa ematea zailtzen du horrek ere. Lotsa edo erreparo halako bat sentitu izan dut neuk ere. Orain Pentatloirako izena eman dugunon artean ere ez dago neska bat herri kirol guztietan ibiltzen denik, edo aparteko afizio bat daukanik. Crossfit egiten dutelako datoz kanpotik datozenak ere. Eskerrak eman behar dizkiegu Berdintasun teknika-erri edo plazan ere emakumezkoak behar direla babestu duten guztiei. Haiak zabaldu digute bidea, eta orain gehiago ari gara plazan. Ezin gara konparatu gizonekin, baina gu ere ari gara lan txukuna egiten. Eta Karmelek dioena ere bada: emakume askok ez dute aukera edo eskubiderik izan plazan aritzeko, eta guk eutsi behar diogu.

♦ **Zuekin batera plazan ari diren gizonengandik zer jaso duzue?**

Denetik dago. Garai bateko jendeak baditu aurreiritzi batzuk. Hau oso gizonen mundua izan da eta askotan alderatzen dituzte gure indarrak eta gure denborak gizonenekin, baina gaur egungo herri kirolariengandik eta zaleengandik ez dut nik

halakorik jaso. Ni neu beti babestu naute kirolariak eta zerbait txarra entzun badut beti izan da kanpokoengandik, lehengo jende horrengandik.

♦ **Zer helbururekin joango zarete Pentatloira?**

Lan polita egitera joango gara, eta ahal bada, txapela irabaztera. Sekula ez dut maila honetako ezer jokatu eta badakit niretzat sekulako presioa izango dela. Batzuk hazi egiten dira plazan, baina ni presioak kontsumitu egiten nau batzuetan.

♦ **Egin beharreko lana zein izango da?**

63 kiloko harriarekin hogeita jasoaldi egin beharko ditugu aurren, eta bakoitzak gutxienez 8 aldiz jaso beharko du. Gero, plaza bat osatu beharko dugu proban, 250 kiloko harriari tiraka. Aizkoran, 1.05 metroko diametroko bi enbor ebaki beharko ditugu eta ondoren, 25na kiloko bi txingarekin hiruna plaza egin bakoitzak. Azkenik hiru kilometro osatu beharko ditugu korrika, eta bakoitzak gutxienez 800 metro egin beharko ditu. Lan gogorra da gure antzera ezertan espezialista ez denarentzat, baina txingetan eta aizkoran ikusten dut neure burua gogorren. Mutilek kanporaketan bete beharko duten lana da guk finalean osatu beharko duguna, geure pisuetara ekarrita.

♦ **Tolosako zezen-plazan jokatuko dira bi finalak, ekainaren 20an. Mendaroarreni zerbait esango diegu?**

Ai ene! Ez dakit ba zer esan! Plazara irten eta ezagunen bat ikusten badut, seguru urduri jarriko naizela, baina eskertuko diet babesari. Horren zalantzarik ez izan.

“Lan polita egitera joango gara Pentatloira, eta ahal bada, txapela irabaztera”



▶ HODEI EZPELETA AIZKOLARIA

◆ Aita -Ernesto Ezpeleta Biurri- aizkolaria duzu, eta pentsatze-koa da haren eragina izango zenuela, ala?

Ume-umetatik egon naiz ni aizkoraz inguratuta, eta nik uste dut horrek, nahi edo ez, afizioa egitea dakarrela, bai.

◆ Oso ume zinela hasi zinen aizkorian, oso ume plazan. Akordatzen zara plazara irten zinen lehenengo aldiaz?

Bai, lehenengo bi plazak astetebetteren barruan egin nituen, San Joan bueltan. Lehenengo, Altzolan izan zen, eta bigarrena, Eibarko auzo txiki batean. 6 urterekin hartu nuen estreinakoz benetako aizkora bat, eta 7 urterekin egin nuen lehenengo plaza.

◆ Zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Umetan aitaren pare izan nahi nuen. Ez nituen aizkolaria asko ezagutzen, eta etxean nuena imitatzen saiatzen nintzen. Aizkorian hasi ahala, baina, hasi nintzen beste batzuei erreparatzen, jarri nintzen plazan eta bideoetan ikusten nituen

beste batzuei begira ere, eta esango nuke Migel Mindegia eta Floren Nazabal bihurtu zirela nire idolo-edo.

◆ Txapelketen mundura noiz egin zenuen salto?

17 urterekin jokatu nuen lehenengo txapelketa, Bizkaiko Bigarren Mailakoa. Zorionez irabazi egin nuen eta gero etorri zen 18 urtez azpikoen Euskal Herriko Kintopekoen Txapelketan lehiatzeko aukera. Behin 18 urte beteta, Euskal Herriko Hirugarren Mailako Aizkolarien txapelketarako eman daiteke izena, eta halaxe egin nuen nik ere. Hortik aurrera kategoriaz kategoriaz joan naiz.

◆ Egunean zenbat orduz entrenatzen zara?

Aitak entrenatzen nau, eta beraz, biok libre daukagun guztietan egiten dut aizkorian.

Aizkorian egiteari beti eman diogu gurean lehenetsuna. Ikasketei ere bai, jakina, baina aizkorian eskaini dizkiot gainerako ordu asko, plazara ezin delako irten aizkorian egin gabe.

Maila eman behar da. Ez daukagu ordutegi jakin bat entrenamenduetarako. Gure artean hitz egin eta libre gaudenean entrenatzen gara. Beti dago zerbait egiteko: entrenatzea da bat, baina egurra ere prestatu behar da...

◆ Zelakoak izaten dira zuen entrenamenduak?

Alde fisikoa lantzeko mendira joatea izaten da ona, baina idealena ahal den guztian aizkorian egitea da. Kolpeak non eman ikasteko eta aizkorarako behar den indarra lantzeko ez dago aizkorian egitea baino gauza hobirik, baina egia da alde aerobikoa lantzeko lagungarria dela korrika egitea ere. Horrez gain, gerria gogortzeko ariketak ere egiten ditugu.

◆ Mindegia eta Nazabal aipatu dituzu. Baso-mutilak izan dira haiek, basoan zaildutakoak. Orain aizkorian zabilta-tenotako askok, baina, ez duzue basoarekin harreman hori izan. Zer alde dago garai batekoen eta gaur egungo aizkolarien artean?

Zeuk esan duzu: baserri giroari lotuago zeuden garai bateko aizkolaria eta beti zuten zeregina. Lanerako erreminta zuten haiek aizkora eta mendian asko ibiltzen ziren egurretan, animaliekin edo bestela. Era horretan nahi gabe ere gogortu egiten da bat, eta sufrizera ohitu. Gaur egun, baina, kalean hazitako asko ari gara aizkorian, eta preparazioa beste bat da. Orain, gehiago dakigu prestakuntza kontuetaz. Badakigu zer lortzeko zer landu behar den gehiago, baina lehenegok zuten hori ez daukagu eta nik uste dut horrek aldea markatzen duela. Txapelketetako denborei begiratzea baino ez dago. Kostatuko zaigu haien denborak ontzea! Denborei erreparatzen diedanean harrituta gelditzen naiz. Sekulako meritua zuten!.

◆ Aizkorak ere hobetuko ziren ba, ala?

Bai, aizkorak hobekuntza dira, eta orain badakigu giharrak horrenbeste ez behartzeko zer landu behar dugun, nola entrenatu behar garen, eta zer komeni zaigun jatea eta zer ez, baina... Logikak dio gainerako kirol guztietan bezala aizkorian ere markak

ontzen joan beharko ginatekeela, baina ez, ez gara heltzen horretara. Lehengoentzat ofizioa zen. Euskararekin gauza bera gertatzen da: orain lexikoaz, gramatikaz eta abarrez gehiago dakigu, baina ez dugu gure aurrekoek zuten erraztasunik eta adierazkortasunik.

♦ **Aizkolariaren semea izatea zer da zuretzat? Karga ala lagungarri?**

[Kar, kar] Bietatik du, baina bigarrenetik gehiago.

♦ **Plaza zenbat eta beteago, orduan eta gusturago aritzen zirela irakurri nizen, artean ume zirela.**

Lehen baino urduiago jartzen naiz orain plazara irten behar naizenean eta horixe kontrolatzen ikasi behar dut.

♦ **Egingo dugu zure ibilbidearen errepaso bat?**

Bizkaian 18 urte bete aurretik lagatzen dute txapelketetara aurkezten eta Bigarren Mailako bakarkakorako eman nuen izena, eta irabazi. Ez neukan besteen erreferentzia handirik eta ez nekien nola erantzungo nuen ere, baina irabazi nuen. Espero gabeko garaipena izan zen, eta izugarri poztu nintzen. Maruri-jataben jokatu genuen txapelketa hura, eta 17 urte nituen nik. Urrezko Aizkorara 18 urterekin hasi nintzen aurkezten, eta adin horrekin jantzi nuen txapela Azpeitian, 19 urtez azpikoetan, bakarka. 20 urterekin hasi nintzen gero 23 urtez azpikoekin lehiatzen. Iaz finalera iritsi nintzen Binakako Urrezko Aizkora Txapelketan, eta aurten, martxoan, bigarren egin dugu Goizeder Belzak eta biok txapelketa horretan [Ibai Sorokak eta Txomin Amundarainek jantzi zuten txapela, gauzatu beharreko lanak 18 minutu eta 40 segundotan amaituta. Minutu bat eta 25 segundo gehiago behar izan zituzten Ezpeletak eta Belzak]. Gu geu txiripaz sailkatu ginen finalerako egia esan, lau segundo eskasengaitik, baina bageneukan fedea geure buruengan, elkar ondo hartzen dugulako. Inork gutxik esperoko zuen zerbait gugandik, baina nahiko ondo jardun ginen. Gehiago nahi genuen, eta grabazioa ikustean konturatu ginen izan genuela denbora gehiago jateko aukera ere, baina kanpotik beti ikusten da dena errazago.

♦ **Azpeitian jokatutako txapelketatik aizkolarien adina azpimarratu dute. Zure laguna ez beste guztiak 25 urtez azpikoak zireten; oso gazte ziretela, alegia.**

Plaza gaztetzen ari da, bai. Beti dago belaunaldi aldaketa bat. Ez nuke esango erretiroa hartzen dutenak maila ematen ez dutelako erretiratzen direnik, aizkora ez delako gertatzen beste kirol batzuetan gertatzen den hori; nik uste dut atzetik jende gaztea bultzaka datorrela ikusten dutelako erretiratzen direla, gaitasunez oraindik gu baino gehiago direlako. Mindegia, Arrospide, Larretxea, Olasagasti, Mendizabal, Nazabal... begira zer mailatako aizkolaria izan ditugun hemen! Gazteak indartsu etorrita ere, horiei plazan lekua kentzea ez da batere erraza izan, haien markak ontzeko aizkora ondo baino ho-

beti egin behar delako.

♦ **Iazko abenduan, aurten gorengo mailan jokatzenik pauso batera gelditu zinen.**

Bai, Bastidan izan zen hori. Federazioak eta Egur Sport enpresak antolatu zuten txapelketa. Urrezko Aizkolarien Euskal Herriko 2. eta 3. mailetako Aizkolaria Txapelketako finalak jokatu genituen. Bigarren mailako finalean lehiatu nintzen ni. Zazpi aizkolaria ginen: Pentatloian-eta hiru aldiz txapeldun izandako Zaldua, urte askoan Lehenengo Mailan lehiatutako Luis Txapartegi, Oier Kañamares, Donato Larretxea aizkolaria handiaren seme Oihan Larretxea, Iban Resano, Joxean Etxeberria eta neu. Bi kanaerdiko enbor, beste bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar izan genituen, eta Oier Kañamares aizkolaria nafarrak irabazi zuen txapelketa. Luis Txapartegi aizkolaria nafarrak irabazi zuen bigarren, eta nik hirugarren. Nere aurretik gelditu ziren biek lortu zuten aurten maila nagusian jokatzen txartela. Gehiago egiteko asmotan joan nintzen ni Bastidara, baina egia da nerbioek jota joan nintzela.

♦ **Eta nola ikusi zenuen zure burua?**

Ondoan nituenei aurre egiteko kapaz, baina hori bukatu ostean konturatu nintzen, joan, oso urduri joan nintzelako.

♦ **Zer aholku eman zizun aitak?**

Etxean bezala aritzeko, baina plaza, plaza da.

♦ **Plazak zer eman dizu zuri?**

Esperientzia eta egoera jakin batzuei aurre egiteko gaitasuna. Eta aizkora egiteak, berriz, jende asko ezagutzeko

aukera eta beste gauza polit asko.

♦ **Zeintzuk ikusten dituzu gaur zure aurkari zuzenak?**

Nire aurkari zuzena erlojua da. Ni hari begira aritzen naiz. Eta erreferente bat aipatzekotan, Iker Vicente aipatuko nuke, punta-puntan dabilelako.

♦ **Tira, oraindik izan dezakezu hala ere Lehen Mailan aritzeko aukera bat, ezta?**

Federazioak erabakiko du hori. Kontua da Lehenengo Mailako aizkolariek beste enpresa bat sortu dutela eta ez direla Federazioa aurkeztu. Horregatik, federazioak zer ebatzi zain gaude gu. Aurten ezin bada, jarraituko dugu aizkora ahal dugun ondoan egiten, datorren urtean igo ahal izateko.

♦ **Zer litzateke zuretzat Lehen Mailan jokatzea, amets bat?**

Ametsa Lehenengo Mailako txapela jantzea litzateke; Lehenengo Mailan jokatzea, berriz, helburua betetzea.

♦ **Uxue Ansorregi eta biok batu zaituztegu gaur hemen. Gero eta emakume gehiago ari dira plazan, herri kiroltan. Zer duzu esateko?**

Gizartearen eboluzioaren ondorioa dela hori. Gainerako alorrean bezala, emakumeak ari dira lekua irabazten, eta merizimendu osoz. Oso ondo ari dira, eta iruditzen zait oso gauza polita dela hori.

“Orain gehiago dakigu gauza askori buruz, baina kostako zaigu gure aurrekoen denborak ontzea!”




Jon Lizarralde

► Udaberri(ko)loreak

Udaberriari buruzko erretratuak eskatu genituen, eta 85 argazki jaso ditugu guztira. Aste Santuko oporraldian izan dugun eguraldia aprobetxatuta, argazki dotoreak iritsi zaizkigu erredakziora. 18 lagunek bidali dituzte argazkiak, eta horien artean Errigorako bi saski zozkatu ditugu: Idoia Peñagarikano eta Jon Larrañaga izan dira saridunak. Argazki bilduma osoa ikusteko www.barren.eus.




Imanol Cerdeira



Izaro Etxegibel




Ilargi Galeano



Juan Jose Roldan



Mari Tere Arakistain



Elena Garate



Jon Larrañaga



Ane Muro



Esther Larrañaga



Marian Gabilondo



Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa. Arg.: Goiena

“Zaurgarriegia da basogintza eredu hau eta ustiaketa eredu aldatu beharra dugu”

► IÑAKI ETXEBESTE eta MARKEL ARRIOLABENGOA

ERREZ KOOPERATIBAREN SORTZAILEAK

Mendaroko Udalak antolatuta, ‘Alternatiba berria basogintzan’ izenburuko hitzaldia eman zuten joan zen barikuan Errez Kooperatibako Markel Arriolabengoa baso ingeniariak eta Iñaki Etxebeste biologoak San Agustin aretoan. Basogintzari lotutako ohiko lanak egiten dituzte Errez Kooperatiban (*errez.eus*): basoak neurtu, antolatu, sortu edo mugatu, baina ikerkuntzan eta dibulgazioan ere aritzen dira. Ikusitakoak ikusita, basogintza eredu jasangarriago baten alde egin nahi dute, eta horretarako, Tantai Baso-Jabe Kooperatiba sortzea proposatu dute.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Noiz eta zertarako sortu zenuten Errez kooperatiba?

Iñaki: 2018an sortu genuen kooperatiba, Euskal Herrian basogintzak, eta oro har, ingurugiroak bizi duen egoerari irtenbide ezberdin bat emateko. Hiru lagunek osatzen dugu: bi bazkidek [eurek] eta kontratupeko langile batek [Aitor Kortabarria]. Baso ingeniaria da ikasketaz Markel, eta ni, berriz, biologoa, urte askoan basoen

osasuna ikertzen jardundakoa. Basoen osasunak, klimak, bioaniztasunaren galarak eta espezie exotiko inbaditzaileek arduratuta gauzkatelako sortu genuen Errez, eta hiru ardatz nagusi dauzkagu zehaztuta hasieratik: ikerketa, basoen kudeaketa jasangarria eta hezkuntza.

◆ Gaur egungo basogintza eredu “agortuta” dagoela diozue. Zergatik?

Markel: Basoak gai izan behar dira da-

tozen aldaketei erantzuteko, eta aldaketa printzipalak honakoak dira: klima aldaketa, globalizazioak eta kasu batzuetan klima aldaketak berak eragindako izurrite eta gaixotasunen ugaritzea, eta merkatuaren aldakortasuna. Bistan delako garapenak eta teknologiak aurrera egin ahala, merkatuak askoz aldakorragoak izango direla. Eta gertatzen dena da gaur egungo basogintza eredu hain dagoela

simplifikatuta eze, aldaketa txikienaren aurrean segituan kolapsatzen dela. Hau da, ez duela gaitasunik aldaketetara egokitzeko, banda gorriarekin ikusi dugu bezala. Egungo basogintza eredu oso kaltebera da eta errentagarritasun ekonomikoa ere ez da lehengoa. Dirulaguntza handiekin josi ezean, eredu hau ez da bideragarria.

lñaki: Nabarmendu nahi nuke globalizazioak izan duen eragina. 2000. urtetik gaur arte oso agerikoa izan da nola baldintzatu duten hemengo egurraren merkatua inguruko merkatuek. Adibide bi aipatzearen: 2008ko krisi ekonomikoarekin batera behea jo zuen egurraren prezioak eta 2019an errematea eman zuen Klaus zikloi extratropikalak. Landetan arbola ugari bota zituen zikloiak eta hango egurra hona ere ekarri zuten, eta metro kubiko egurraren prezioa 90 eurotik 40 bat eurora merkatu zen gutxi gorabehera. Banda marroia oso ikusgarria izan da, denok ikusi ditugulako basoak gorri sasoi aurretik, paisajea erabat aldatu delako, eta gainera, kezka handia sortzen duten beste dinamika batzuk abiarazi dituelako, eukaliptoaren landaketa masiboa esaterako. Aldaketa bat sortu da, bai, baina aldatu den bakarra espeziea izan da, kudeaketa eredu ez baita ezbaian jarri.

♦ **Banda marroia baino gehiago ere badago orduan gainbeheraren atzean.**

lñaki: Bai, banda marroiak bistaratu ditu kontu asko, baina gaitz hori sortzen duen onddoak urte asko daramatza hemen. Kontua da gure basoak ez daukela behar bezain indartsu, behar bezain osasuntsu, izurriari aurre egiteko. Ikusita dago konifero basoek gutxi gorabehera 100 urteren bueltan pott egiten dutela. Intsinis pinuaren kasuan, 80 bat urte dira, baina gure basoek badi-tuzte horrenbeste urte eta gainbehera ekologikoa igarrita daude. Arbola guztiak adin berekoak dira gure sailtan, gehienak genetikoki oso-oso hurbilekoak dira eta gaitzak bati eragiten diotenean, denei eragiten die. Orain arte

bagenekien pinua sartuz gero nolabaiteko etekina jasoko genuela, baina orain ikusi dugu pinuaren alde egitea ere ez dela apustu errentagarria, ez ekonomikoki eta ezta ekologikoki ere. Eta horregatik diogu zaugarriegia dela basogintza eredu hau eta ustiaketa eredu aldatu beharra dugula. Diruari ezin zaio muzin egin, baina beste gauza batzuei erreparatzeko garaia da.

“Diruari ezin zaio muzin egin, baina beste gauza batzuei erreparatzeko garaia ere bada”

♦ **Zer motatako basogintza eredu aldarrikatzen duzue zuek?**

Markel: Bertako espezieetan oinarritutako basogintza sustatzen dugu guk, bertako espezieak direlako aldaketetara egokitzeko gaitasun handiena dutenak. Horrez gain, mozketa eredu aldatzea ere proposatzen dugu, gaur egungoa oso bortitza delako ingurumenerako eta kolokan jartzen duelako basoen iraupena. Proposatzen duguna da arbola denak batera bota ordez bakanketak egitea hamar-hamabost urtean behin; hau da, ezaugarri berezi batzuk dituzten zuhaitz batzuk bakarrik moztea, momentuan interesatzen zaizkigunak. Mozketa eredu horren bidez, basoek beti izango lukete zuhaitz estaldura eta basoak berezko dituen ekosistema-zerbitzu guztiak bermatu ahal izango lirakeke. Beraz, etekin ekonomiko askoz jarraituagoak izango genituzke eta basoari askoz kalte txikiagoa eragingo genioke. Nolabait esateko: basogintza suabeagoa da, baina gizartearen lehengaita eskuratzeko premiak berdin-berdin asetzen dituena. Ez da eredu berria; munduan oso zabalduta dago.

♦ **Baina egurrak ematen du, ez du ematen, ala ematen du, baina ez guk nahi beste?**

lñaki: Jabetzak orokorrean txikiak dira hemen, eta lur-jabeak orokorrean gizonetako oso nagusiak dira eta aldaketari beldurra diotenak, kudeaketa eredu jakin bat ezagutu dutelako beti. Askok dute euren idearioan pinuak diru asko eman dien kontu hori, eta hein batean hala izan da: pinuak dirua eman du hemen, baina eman du, baserritarrek eurek egin dutelako lan guztia basoan. Orain, kontratatut egiten dira langileak basoko lanetarako eta aldagai hori ez da kontuan hartzen, analisi ekonomikoak egiteko orduan. Ertz asko dauzkan gaia da hau eta fenomeno orokortua da; arrazoi askoren batura da egungo basogintza ereduaren agortzea.

♦ **Herriz herri zabiltzate zuek egungo basogintza ereduaren “alternatiba” aurkezten. Zer kezka agertzen dizute baso-jabe txikiak?**

lñaki: Planteatzen dugun kudeaketa eredu berria zaienez, badago halako erresistentzia moduko bat, baina beste herrialde batzuetako zenbakiak mahai gainean jartzen ditugunean argiago ikusten hasten dira dena. Ohiko galderetako bat izaten da zenbat urtera jasoko duten etekina. Gertatzen zaiguna da guk haritza aipatu orduko lur-jabeak hasten direla pentsatzen 100 urtera jasoko dutela uzta, baina ez da horrela. Guk planteatzen dugun ustiaketa-epeak orain artekoen oso antzekoak dira, eta behin basoa egonkortzen denean gainera, uzta askoz ere maiztasun handiagoarekin jasotzen da, 10-15 urtean behin. Eta hori zura bakarrik kontuan hartuta. Izan ere, oinarritzen bagara beste ekosistema-zerbitzu batzuetan onurak handiagoak izango dira. Basoek karbono kopuru handia gordetzen dute eta atmosferako CO2 murrizten dute. Era berean, airea arazten dute, oxigeno kopuru handia sortzen dutelako, eta uraren zikloa ere erregulatzen dute eta, itxura guztia dauka kontu horiengatik ere hasiko direla lur-jabeak konpentsatzen. Basoak, eta bereziki bertako espezieedunek, bestelako irabaziak ere ematen dituzte eta horiek ordaintzen hasiak dira iada gertuko herrialde batzuk.

♦ **Ataka zailean daude baserritarrak. Salatu dute badagoela euren kontrako kriminalizazio ahalegin bat. Uste dute euren lekuan, gaur kontra dituztenek ere gauza bera egingo luketela: eurena denetik ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu. Gure baserritarren jabetzak zenbatekoak dira, eta irabaziak?**

Markel: Polarizazioa handia da. Badaude jabe batzuk ehunka hektarea dituztenak, baina normalean jabetzak nahiko txikiak izaten dira. Batez beste esaten da lur-sailak 1,5-2 hektareatakoak direla hemen, eta jabetzak, berriz, bost hektareatakoak. Ataka zailean daude baserritarrak, bai, gaur egungo ustiaketa eredu honetan. 400 hektareako sail batekin egindako kalkuluan ikusi dugu, hektareako eta urteko, batez beste, 60 bat euro jasotzen direla gaur, eta dirulaguntzak kontuan hartzen baditugu, 150 bat euro. Lur gutxi daukanarentzat diru hori oso gutxi da. Oso inbertsio handia egin behar izaten du lur-jabeak hasierako urteetan eta inbertsio hori hogeit bat urtera hasten da errekuperatzen. Eta inbertsio horren arriskua oso handia da, jakina, inork ez baitaki hemendik hogeit urtera zerk izango duen balioa. Mendaron, gehien sartu den espezie berria *Cryptomeria* da, esaterako. 60 bat urtera ematen du etekina espezie horrek, baina guri oso tematia iruditzen zaigu hemendik 60 urtera, hemen, *Cryptomeriantzako* merkatu bat egongo dela estimatzea, eta apustua da espezie bakar baten alde egitea. Merkatu berri bat izango dugu, guztiz ezberdina. Kontu bat hala ere, guk oso argi daukaguna: baserritarrek ahal duten ondoen egiten dute, eta intentzio txarrez oso jende gutxi dabil.

♦ **Eta haietzako eredia da zuek proposatu duzuen Tantai Baso Jabe Kooperatiba. Zertan datza?**

Iñaki: Basogintzako lan bat da, baina ikerketatik ere asko duena. Debagoiena 2030 lankidetzaren sare irekian sartuta gaude gu, eta sare horrek finantzaturako proiektua da [lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki

neutroa izango den Debagoiena batez beste eraldaketa bultzatzea du helburu Debagoiena 2030 sareak]. Tantai Baso Jabe Kooperatibaren bidez gaur egun basoek bizi duten egoerari erantzun kooperatibo eta jasangarri bat ematea da gure helburua.

“Egungo basoek bizi duten egoerari erantzun kooperatibo eta jasangarri bat eman nahi diogu”

♦ **Zeintzuk onura dauzka Tantai Baso Jabe Kooperatibak?**

Markel: Guk planteatzen dugun ustiaketa eredian apurka-apurka ateratzen dugu egurra basotik eta kostuak oso baxuak dira, baina eredia bera ez da oso gauzagarria gaur egungo jabetzen tamainarekin. Azalera oso txikiak dira hemen, eta mozketak 10-15 urtean behin egin behar badira eta bakoitza hasten bada bere basoa bere kabuz kudeatzen, oso zaila izango da errentagarritasun ekologikoa eta ekonomikoa lortzea. Horregatik planteatzen dugu batzea eta denok batera kudeatzea, gastuak are gehiago murrizteko eta etekin hobea lortzeko. Tantai Baso Jabe Kooperatiban baso-jabe bakoitzaren ekarpena bere basoa izango da. Berdin dio lur publikoak zein pribatuak izan. Jabeak ez du basoaren jabetza emango, baizik eta basoaren erabilera. Hala, baso horiek guztiak modu bateratuan kudeatuko ditugu.

♦ **Eta etekinak nola banatuko dituzue gero?**

Iñaki: Baso bakoitzak ematen duenaren arabera. Zure basotik atera bada egurra, horri dagokion etekina eskuratuko duzu, bai eta CO₂agatik lortzen den konpentsazioaren alde proportzionala ere. Eta basoak sortzen duen uragatik ordaintzen hasten direnean ere

dagokizun partea jasoko duzu.

♦ **Eredu honen antzekorik badago ger-tuan?**

Markel: Bai, Frantzia, Erresuma Batuan eta Eslovenian badaude kooperatiba batzuk eredu honen pean kudeatzen dutenak, eta Polonian, esaterako, lur azaleraren ia %100 ustiatzen da modu antzerakoan. Gertatzen dena da, han, lurren %90 estatutarenak direla.

♦ **Zenbakiren batzuk emateko moduan izango zarete hortaz?**

Iñaki: Bai, Frantziako AFI elkartearen erreferentziak badauzkagu, 30 bat urtean eredu honen pean ustiatzen dituzten baso helduenak. Eta han, gure basoen antzekoetan, 400 bat euro ateratzen ari dira urtean, hektareako. Hemen basorik onenetan lortu den etekinaren bikoitza da hori. Zifra hori ematea saihesten dugu aurkezpenetan, inork ez dezan pentsatu ezer puzten ari garenik. Izan ere, egia da hemengo erreferentzia nahikorik ez daukagula konparaketa erreal bat egiteko. Momentuan dauzkagun datuek erakusten dute, hala ere, etekin handiagoak lortzen direla ustiaketa eredu honekin. Aramaioko udal lurretako kasua da guk ondoen ezagutzen duguna eta han pinuak ematen duena nabarmen igo daitezkeela uste dugu. Balorazioa egiteko datu bolumen handiago bat behar dugu, eta hori esperientziak emango digu, baina sententziak oso onak dira. Bitartean, aldameneko herrialdeetara begiratzea baino ez zaigu gelditzen.

♦ **Hezkuntzan ere egiten duzue lan. Zein da zuen proiektu izarra?**

Iñaki: Salaberri agestoi [hariztia bertako euskalkian], Aramaioko Udalaren enkarguz sortu genuen interpretazio gunea. Proiektu honen helburua zera zen: Aramaioko Salaberri hariztiaren egoera hobetzea eta herritarrei basoa eta honen dinamika ekologikoa ezagutzeko aukera ematea, baso kudeaketa ezberdinak ulertzeko oinarri bat eskainita. Harizti hori Salaberri familiak herriari dohaintzan emandakoa da, eta Udalak basoa babesteko konpromisoa hartu zuen.



Fermin Arrese hil da, Juan Mugertza Nazioarteko Krosaren bultzatzaile nagusietako bat izandakoa

Fermin Arrese hil da, urte askoan Juan Mugertza Nazioarteko Krosari lotuta egon den gizona. 1948. urtean batu zen Mugertza Krosaren antolakuntza taldera Fermin Arrese, Jose Gurrutxaga zenarekin batera (2016ko urriaren 23an hil zen). Casto Iraegi eta haren taldeari erreleboa hartu zieten bi lagunek, eta haien ardurapean hartu zuen krosak nazioarteko izaera ere, 1963an. "Txiripaz gertatu zen. Elgoibarko bizilagun bat Donostiara joan zen hileta batera eta han Sein izeneko kazetariarekin egin zuen topo. Lasarteko krosari buruz hizketan ari zirela, hark esan zion Gipuzkoako Atletismo Federazioa korrikalari afrikarrak ekarri nahian ari zela, eta tartean Mamo Wolderen izena aipatu zion. Atleta afrikar haietako batzuk Elgoibarrera ekartzeko aukera aipatu zion Seinek, gurea Lasarteko krosa baino astebete aurrerik jokatzen zelako. Eta halaxe hasi ginen Wolderen atzetik. 60.000 pezeta eskatu zizkiguten Mamo Wolde eta Marian Elgoibarrera ekarteagatik Elgoibarrera eta guk onartu egin genuen", adierazi zuen 2012an, Kros Mugertzaren antolakuntza taldea utzi ostean. Urte hartan omenaldi hunkigarria egin zioten Elgoibarko Udalak eta Mintxeta Atletismo taldeak. Arresek 63 urte egin zituen krosaren antolakuntza taldean, harik eta Ego-Tokik hartu zuen antolakuntza lanen ardurara. Hala ere, krosari lotuta bizi izan da azken-azkenera arte. Azkeneko urteetan berak jotzen zuen kanpaia korrikalariak azkeneko buelta hasten zutenean. 2018an San Bartolome jaiak hasteko suziria ere bota zuen Asensio Otegiarekin batera. Mintxeta Atletismo Taldeari eta Morkaiko Mendizale Elkarteari eman zien ohore hori Udalak, 75. urte bete zitzutelako. Bi elkarten izenean piztu zuten suziria Otegi eta Arresek, Iñaki Laskurain Morkaiko Mendizale Elkarteko presidentek eta Zigor Diez Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkariak pregoia irakurri ostean. Zigor Diez Mintxeta Atletismo Taldeko kideak doluminak agertu dizkie klubaren izenean Arreseren etxeko eta gertukoei, eta esker on hitzak izan ditu urte hauetan guztietan erreferentetzat izan duten gizonarentzat. "Gu 2001ean batu ginen antolakuntza taldera, eta beti sentitu izan dut gertu Fermin. Izugarri maite zuen krosa, eta ez gurea bakarrik. Lasarteko krosera ere eramaten genuen gurekin, bai eta Zornotzakora ere. Izugarri gozutzen zuen. Krosak maiteminduta zeukan eta krosaren berezko sentimendu horrek bizi zuen".

Eibarren bisita jasoko du Haundik, liderrarena

Ohorezko erregional mailako bigarren multzoko liderarren bisita jasoko du Haundik zapatuan (16:30) Mintxeta futbol zelaian. Eibartarrek 12 puntu dituzte sailkapenean, lau partida irabazi, eta beste bat galdu eta gero. Haundi hirugarren postuan sailkatuta dago, 10 punturekin. Txuri-gorriek hiru partida irabazi dituzte, bat galdu eta beste bat berdindu, azken hori Mutrikuren aurka, jokatutako azken jardunaldian. Hortaz, Lauko finalerako sailkatzeko partida erabakigarria izango da zapatukoa. Izan ere, multzo bakoitzeko lau onenek Lauko Finala jokatuko dute maiatzean eta ekainean. Finala ekainaren 13an jokatuko dute. Irabazleak Hirugarren Mailan jokatuko txartela eskuratuko du.



Arg.: Manu Sanchez

Gorosabelek eta Larizek emaitza onak lortu dituzte Green Series BTT irekian



Mendi bizikletako probarik garrantzitsuenetarikoa da Green Series XCO irekia. Aurten Bizkaian jokatuko dituzte proba guztiak, zortzi guztira. BTTko modalitate olinpikoan jokatzen dituzte proba hauek, bost edo sei kilometroko ibilbideetan hainbat itzuli eginez, kategoriaren arabera. Gobike taldeko bi txirindulari ari dira txapelketa honetan lehiatzen, Iñaki Gorosabel eta Iñigo Lariz, eta emaitza onak eskuratu dituzte orain arte jokatutako probetan. Lehenengoan, Erandion, bosgarren postua eskuratu zuen Gorosabelek, 50 urtetik gorakoentzako Master 50 kategorian. Lariz, berriz, bederatzigarren postuan sailkatu zen Master 30 kategorian. Joan den domekan, apirilaren 11n, jokatutako bigarren proba, Bilbon. Gorosabelek laugarren egin zuen bere adin tartean eta sailkapen nagusiko hirugarren postuan dago orain. Lariz zazpigarren postuan sailkatu zen Master 30 kategorian.

June Loidik Bera Bera taldean jokatu du datorren denboraldian

Super Amara Bera Bera eskubaloit taldean jokatu du hurrengo denboraldian June Loidi Etxanizek (Elgoibar, 2000). Hala, mailari eusteko borrokan diharduen Zubileta Pro Evolution Zuazo taldean jokatzetik ligako talderik indartsuenetarikoa den Bera Bera taldera joango da, donostiarrak ligako egungo txapeliduna izateaz gainera, liga irabazteko aukera handiak baitituzte denboraldi honetan ere. Gainera, Europako txapelketetan ere lehiatzen dira. Hortaz, aurrerapausoa izango da Loidiren eskubaloit ibilbidean. Loidi 2018an iritsi zen Barakaldoko taldera, Sanlorekin akordioa sinatu eta gero. Hasieran defentsako lanean nabarmendu zen, eta ligako defentsarik onena izendatu zuten emakumeen eskubaloitko gorenko mailan egin zuen aurreneko urtean. Aurten urrats bat aurrera egin du eta erasoko jokoa ere funtsezko jokalaria izaten ari da, 63 gol sartu baititu ligako 17 partidatan. Txapelketaren lehen fasean 58 gol sartu zituen, eta ligako laugarren goleatzaile onena izan zen. Orain, mailari eusteko fasea jokatzen ari da Zubileta Pro Evolution Zuazo, beste zazpi talderekin lehiatzen, eta Loidik bost gol gehiago sartu ditu fase honetan. Hori bai, hiru partida jokatu eta hirurak galdu dituzte Barakaldokoek fase erabakigarri honetan. Kantxan zailtasunak ditu talde bizkaitarrak eta bulegoan ere estu daude gauzak, arazo ekonomikoak baitituzte.




Arg.: VGGaribay

Udako Kirol Campusean izena emateko epea astelehenean zabalduko dute

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Udako Kirol Campusa antolatzen du uda sasoirako, 7 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta (2006-2014 urte bitartean jaiotakoak). Kirol Campusa ekainaren 21etik uztailaren 23a arte egingo dute. Izena emateko epea apirilaren 19tik maiatzaren 28ra artekoa izango da, eta interesdunek Olaizaga kiroldegian bertan edo olaizagaharrera@hotmail.com posta elektronikora idatziz eman ahal izango dute izena. Patronatuko bazkideentzat kuota 128,50 eurokoa izango da, eta bazkide ez direnentzat, 141 eurokoa. Kirol Patronatutik ohartarazi dutenez, prebentzio, osasun eta segurtasun neurri guztiak bermatuko dituzte ekintza guztietan eta jarduera gehienak aire librean edo azalera handiko instalazioetan egingo dira, besteak beste, Mintxetako kirol instalazioak eta igerilekuak, Olaizaga eta IMH kiroldegiak, Ikastolako frontoia eta herriko beste hainbat gune erabiliko dituzte kirolerako. Pandemia dela eta, iaz udako kirol campusa antolatu ez bazen ere, honek harrera ezin hobea izaten du herriko haurren artean. 2019an, esaterako, 285 haur eta gazte hartu zuten parte.

Imanol Alvarezek zazpigarren egin du Valentziaga Oroitzarrea

Afizionatuen mailako estatuko probarik garrantzitsuenetakoa da Valentziaga Oroitzarrea, eta joan den domekan ere elite mailako eta 23 urtez azpiko txirrindulari gazte onenak batu ziren Eibarren, probaren 50. ekitaldian lehiatzeko. Lizarte taldeko Pau Miquel txirrindulari kataluniarra izan zen helmugaratzen lehenengoa (3:53:05) eta haren taldekide Igor Arrieta (Jose Luis txirrindulari profesionala izandakoaren semea) sailkatu zen bigarren (1:28 segundora). Imanol Alvarez elgoibartarrak, Eiser Hirumet taldeko txirrindulari gazteak, zazpigarren egin zuen sailkapen nagusian, irabazlearengandik bi minutu eta 28 segundora helmugaratuta. Denboraldi bikaina osatzen ari da Alvarez, punta-puntako txirrindularia dela erakutsiz.



Txirrindularientzako goi errendimendurako zentroa zabaldu du Elgoibarren Mikel Landak, Aitor Galdos eta beste bi bazkiderekin

Elgoibarren kokatu duten Bike360 Pro Cycling Club izeneko proiektua aurkeztu zuten eguaztenean egitasmo honen sustatzaileek, Mikel Landa txirrindulari profesionalak eta haren bazkide Aitor Galdosek, Jesus Ezkurdiak eta Iosu Badiolak. Elgoibarren ireki dutena Mikel Landaren Goi Errendimendurako Zentroa dela zehaztu zuten, eta hiru ardatz nagusi izango dituela: Txirrindularitza kluba, txirrinduzaleentzako zerbitzu integrala eta denda, fisikoa zein online bidezkoa (www.bike360.es). Txirrindulari batek "behar eta desio" duena errealitate egiteko sortu dute proiektua, eta zehaztu zuten txirrindulari afizionatu, amateur edo profesional batek behar dituen zerbitzuak eskainiko dituzte Olaso kalean ireki duten 600



metro koadroko espazioan: besteak beste, Txirrindularitza Kluba, bidaiak, Biomekanika Laborategia, Zelula Nutrizioa Aktiboa, Kirol Medikuntza eta Fisiologia, Osteopatia, Fisioterapia, kirol masajea, entrenamendu personalizatuak, aeroyoga, yoga, pilates eta tailer mekanikoa ere bai. Bike360 kontzeptu berri bat dela argitu zuten aurkezpenean. Txirrindularitzarekin lotura duten produktuak saldu eta zerbitzuak emateaz gainera, Bike360 "klub bat" ere badela esan zuten. "Pasio bera duten pertsonen topagunea izatea nahi dugu: gidak, txirrindulariak, ibilbideak, irteerak, paisaiak, lagun berriak ezagutu, hobetu eta elkarrekin bizikletan ibili", adierazi zuen Mikel Landak, Bahrain Merida taldeko txirrindulariak. Adibide bat ere ipini du Jesus Ezkurdiak: "Italiako Giroan lehiatzera joatekoa da Mikel Landa aurki, eta han emaitza onen bat lortuko balu, zaleekin ospatzeko gunea izatea nahi dugu hau, bilgune bat". Egitasmo hau Elgoibarren kokatu izana ez dela kasualitatea nabarmendu dute. "Txirrindularitzarako zaletasun handia dago hemen inguruan, eta gainera, Euskal Herriaren erdi-erdian dago, leku estrategikoan". Elgoibarko Udaleko ordezkariak ere izan ziren aurkezpenean, Gorka Garaizabal kirol zinegotzia eta Udal Kirol Patronatuko zuzendari Ramon Mugica, hain zuzen ere. "Pozten gara zentro hau irekitzeko Elgoibar aukeratzeaz eta zortetik onena opa dizuegu", esan zien Mugicak. Elgoibarren dauden gainerako kirol zerbitzuak eta instalazioak osatzeko "osagarri" ona izango dela nabarmendu zuen.

Gojko Vucinic hil da, Sanloko harrobiaren arduraduna eta entrenatzailea

Azken hamar urteetan Sanlo kirol taldeko jokalaria, entrenatzaile eta harrobiaren arduraduna izan den Gojko Vucinic (Montenegro, 1970) zendu zen atzo, minbiziak jota. Bere herrialdea laga ostean hainbat urtez jokatu zuen Espainiako Asobal ligan, atezain postuan. 2001. urtean ailegatu zen Euskal Herrira, Arraten jokatzeko. Eibarko taldeko atezaina izan zen taldea arazo ekonomikoaren ondorioz desegin zen arte, 2011n, eta ordutik, Sanlon aritu da. Juanma Lopez sanloko entrenatzailea jarri zen berarekin harremanetan, eta Sanloko harrobiarekin lan egiteko eskatu zion, bereziki, mutilekin. Nesken eskubaloia indartsu zegoen Sanlon, eta mutilena ere maila berean jartzea nahi zuten. Jarri zizkioten helburuak bikain bete dituela adierazi du Lopezek laguna hil berrikan. "Sanloko 'alma materra' izan da Vuchy. Gorputz eta arima aritu da lanean urte hauetan eta emaitzak begi bistan daude; kategoria guztietan ditu taldeak Sanlok gaur egun, harrobiarekin egiten duen lanagatik ezagunak gara, eta emakumezkoen zein gizonen senior mailako taldeak ere goi mailan ari dira. Arrastoa laga du Vuchy-k eta igarriko dugu bere falta, bai horixe", esan du Lopezek. Elgoibarrera iritsi zenean jokatzera ere animatu zuten Vucinic, eta Alkortan egin zituen azken jokalaria urteak. Oroitzapen oso ona zuen, izan ere, Lehen Nazional Mailara igotzea lortu zuten. Harmailetatik ikusteko zortea izan zutenek ere gogoan izango dituzte egiten zituen geldiketa harrigarriak. Gaur egun Alcorta Forging Group taldeko entrenatzailea zen.



Begixak gustu: Bakoitzak bere gustua duela esateko.

'Go!azen' antzerki musikalaren bi saio domekan, Herriko Antzokian

EBT1-eko telesail ezaguneneko aktoreak Elgoibarrera etorriko dira domekan. *Go!azen 7.0* denboraldiko sei aktore arituko dira Herriko Antzokiko ohol-tzan, Glu Glu taldearen eskutik. Aurten, gainera, formato berrian etorriko dira, eta antzerkia baino gehiago, kontzertua izango da. Azken denboraldiko abestiak aurreko denboraldietako abestiekin uztartuko dituzte, eta telesaileko hainbat pasarte ere kontatuko dituzte. Bi emanaldi egingo dituzte, 12:30ean lehenengoa eta 16:00etan bigarrena. Joan zen barikuan jarri zituzten sarrerak salgai, eta ordubetea agortu ziren guztiak, beraz, sarrerarik ezean, ezin izango da domekako emanaldira joan.



'Simplicissimus kabaret' obrarako bi sarrera zozkatuko ditugu

Apirilaren 23an *Simplicissimus Kabaret* obra ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Patxo Telleriak idatzitako umorezko kabareta da, musikala eta euskaraz. Getari Etxegarai, Olatz Ganboa, Patxo Telleria eta Adrian Garcia de los Ojos izango dira aktoreak.

Antzerkira joateko interesa duzuenon artean bi gonbidapen zozkatuko ditu BARRENEK (sarrera bikoitza izango da). Zozketan parte hartzeko bidali zuen izen-abizenak eta telefonoa whatsapppez 688 634 044 telefono zenbakira, 'Simplicissimus' hitza idatzita. Zozketan parte hartzeko azken eguna apirilaren 20a izango da. Jasotako erantzun guztien artean irabazlea aukeratuko dugu eta emango dugu sarituaren berri.

FutbolisTOC bakarriketa gaur, gaztelaniaz

Zuhaitz Gurrutxaga telebista aurkezle eta umoregileak FutbolisTOC bakarriketaren bigarren emanaldia egingo du gaur, Herriko Antzokian. Joan zen barikuan euskarazko bertsoa eman zuen, eta gaur gaztelaniaz jardungo da. Lehen mailako futbolari zeneko anekdotak eta bere azalean ezagutu zuen TOC nahasmenduari buruzko pasarteak kontatuko ditu. 19:00etan hasiko da ikuskizuna.



Muga taldeak hasiko du domekan 'Begiekin ikustekoak' zikloa

Lau kontzertutako zikloa antolatu dute Mendaron Gararock Taldeak eta Udalak: *Begiekin ikustekoak*. Domekan hasiko dute zikloa, Muga taldearen kontzertuarekin. Alberto Gonzalez elgoibartarraren azken proiektua da Muga, Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poema-liburuari musika jartzeko sortutakoa. 19:00etan izango da kontzertua San Agustin kulturetxean eta sarrerak salgai daude dagoeneko Morroskillon eta Puxikan, 2 eurotan.

Atxutxiamaika eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea astelehenean zabalduko dute

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika egitasmoak eta Udal Ludotekak haurrentzako aisia eskaintza zabala prestatu dute udako oporraldirako, HH2tik LH6ra arteko umeentzako. Ekainaren 21etik uztailaren 16ra izango dira udalekuak, eta urtero bezala bi txanda izango dira aukeran, hau da, ekainaren 21etik uztailaren 2ra eta uztailaren 5etik 16ra. Txanda bakarra edo bi txanda aukeratu ahal izango dira. Udalak dirulaguntzak emango ditu: DSBI (RGI) eta GLL (AES) dirulaguntza jasotzen dutenek kuotaren %70a jasoko dute; familia ugariak, guraso bakarrek familiak eta bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenek, aldiz, kuotaren %30a.

Izena emateko epea astelehenean zabalduko dute, eta maiatzaren 2ra arte egongo da zabalik. Arduradunek jakinarazi dute unean-uneko osasun neurriek baldintzatu dezaketela udaldia, eta azken unera arte aldaketak egotea posible dela. Izena emateko hiru bide jarri dituzte:



Elgoibarko Izarra: 943 741 626 - asteleheneetik ostegunera (09:00 -17:00) / ostiraletan (09:00-14:30)
Ludoteka: 943 748 883 - Asteleheneetik ostiralera (15:00 -19:00)
www.elgoibarkoizarra.eus webgunea.

Nerabeentzako 'Festa' liburua idatzi du Jasone Osorok

Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrak *Festa* liburua aurkeztuko du astelehenean. 14-16 urte bitarteko nerabeentzako liburua da. 16 urteko bi lagunen uda bat kontatzen du liburua, Sofia eta Andrearena. Batxilergoa hasi aurreko uda da, eta kostaldeko herri baten bizi dira. Elorza anaiek festa bat antolatuko dute lorategia eta igerilekua dituen etxe handi eta moderno batean, eta bertan hainbat gazte elkartuko dira. Alkohola, dantza, jolasak, jende berria, sexua... presente egongo dira festa horretan, eta Sofia haurdun geratuko da. Horrek hankaz gora jarriko du bere bizitza, eta era guztietako emozioak, sentimenduak eta jarrerak kudeatzen ikasi beharko du: Ukatu egingo du, ezkutatu, beldurtu egingo da, eta, batez ere, erabaki bat hartu beharko du. Liburuak bi atal nagusi ditu: Igerilekuan (festaren zatia) eta Igerian (haurdun geratu dela uste duenetik aurrerako). Osorok konfinamenduan idatzi zuen liburua, eta esan du bi helburu dituela: batetik, gazteak dibertitzea nahi du, baina aldi berean, gazteei ikusarazi nahi die gauzak gertatu egiten direla. "Batzuetan nerabeei gauzak askoz errazago iristen zaizkie fikzioaren bidez, peli-


kulak, liburuak, abestiak... oso erraz identifikatzen dira pertsonaiekin eta horregatik pentsatu nuen aproposa izan zitekeela haurdunaldiaren gaia lantzea liburu batean".

'Golazen'

Era berean, *Golazen* telesailari lotutako liburu bildumako laugarrena idatzi du, eta salgai da dagoeneko. *Asteburu bat eskiatzen* dauka izenburua, eta oraingo honetan, Basakabiko gazteak elurretara joango dira. Lagun-taldea berriz elkartzeko irrikitan dago, baina Basakabi eta uda urrun geratzen dira oraindik. Horregatik, asteburu bat eskiatzen pasatzea erabaki dute. Batzuek primeran eskiatzen dute; beste batzuek, berriz, ideiarik ez. Hala ere, nor bere erara ongi pasatzen saiatuko da. Azkenik, ustekabe batek harapatuko ditu den-denak, eta eskiaz gain, bestelako abenturak biziko dituzte.

Juul sariak

Aste honetan banatu dituzte Juul hauteskunde literarioen 2020ko sariak, eta DBHko ikasleen artean Jasono Osororen Eskularru beltzak bildumako *Ihes* liburua izan da bozkatuena.



LANA.....

Eskaerak

lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritu izan naiz. ☎ 632 915 336

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, arratsaldez edo gauzez. ☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 693 293 539

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta zainketa lanetarako titulazioa daukat. ☎ 626 490 986

Txakurra paseatzera ateratzeko prest nago. Goizez. ☎ 618 337 766

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest. ☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 632 157 852

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan. ☎ 643 977 786

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Berehala lanean hasteko prest nago. ☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean zein etxean. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulazioa daukat. ☎ 602 490 595 / 641 614 236

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke eta baita etxeko lanak egin ere. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 631 980 531

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan eta asteburuetan lan egiteko prest nago. Legezko egoeran nago eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ 643 601 205

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz. ☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ 626 490 986

ETXEBIZITZA.....

Etxe bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 660 458 756



ZORIONAK

Argazkiak martitzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Jon!** Gure txikitxoak 3 urte potolo betetzen dituen honetan, zorionak etxeko guztion partez. Maite zaitugu.



Zorionak, amama, ama, **Karmen!** 80 urte eta sekula baino ilusio handiagoa ibiltzeko eta parrandarako. Eutsi horri luza-roan! Etxekoak.



Zorionak, **Libe!** gaur 5 urte bete dituzulako. Ospatuko dugu behar bezala. Patxo bat, denon partez eta bereziki, zure neba Luke-nen partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Manex eta Maria!** ostegunean 5 urte bete eko dituzuelako. Zuek zarete gure familiako argia. Etxekoak.

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Enkainatutako Finantza Administrazioen Elkartea



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Senar-emazteak gara, eta nire senarrak lur-sail bat jaso du amarengandik dohaintzan. Lur horretan obra egin nahi dugu etorkizunean. Nire galdera honako hau da: lursaila senarrarena izan arren, obra berri hori irabazpidezko ondasun izendatu dezakegu, edo lur-sail hori dohaintzan eman duenak egin behar du hori? Nola egin genezake nik, bikotekideak alegia, obra berri hori egiteko kapitala jarri duela jasota gelditu dadin?

Lur-sail hori dohaintzan jaso duena lur-sailaren beraren jabea ez ezik lur horretan eraikiko denaren jabea ere bada, bikotekideari obra hori egiteko jarri duen dirua itzultzeko betebeharririk libre gelditu gabe (adibidez, kreditua eskatzen bada irabazpidezko ondasunen kontrakoa eskatuko da). Obra hori irabazpidezkoa izateko, obra berria lur-sailarekin batera izendatu beharko da bikotearena, edo bestela, lur-saila bera jarri lehenengo bikotearen izenean eta gero egin obra berria.

AHOLKUA: Etxaldea bikotearen izenean jartzeko bi modu daude: salerosketa edo dohaintza. Galdetu iezaiozu notarioari zeintzuk diren bien arteko aldeak eta baikoitzak zer gastu suposatzen dituen, ezer egin aurretik.

ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2



Gojko Vucinic

"Vuchy"

2021eko apirilaren 14an hil zen, 50 urte zituela.
Bihotzez eskertzen ditugu jasotako doluminak

***Tipo jatorrak utzi gaitu,
gure klubaren oinarrietako bat izan den lagunak,
Elgoibarren kirolaren alde asko egin duen pertsonak.
Vuchy ez zaitugu inoiz ahaztuko,
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.***



16 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

19:00 Bakarriketa: 'FutbolisTOC'. Zuhaitz Gurratxagak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Gaztelaniaz.

17 ZAPATUA

12:00 Omenaldia. Oier Etxaniz Benez hil zela urtebete pasa ondoren, hura oroitzeko ekitaldia antolatatu dute. Bolatokian.

18 DOMEKA


12:30 eta 16:00 Antzerkia: 'Golazen 7.0'. Glu Glu produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

19:00 Kontzertua: 'Muga'. Gararock taldeak eta Mendaroko Udalak antolatuta, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrera: 2 euro.

23 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Simplicissimus kabaret'. Tartean Teatroak taularatuko du. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Nomadland'
17 zapatua: 19:00
18 domeka: 19:00
19 astelehena: 19:00



'Zinegoak'
(Ongarri zinekluba)
21 eguaztena: 19:00

- Leo eta Alex
- XXI. mende bete-betean
- Red bay
- Mall
- La amante
- Hemen, gaur, berriz



LIMPIEZAS GARCIA



**ERABATEKO GARBIKETA
ETA DESINFEKZIOA**

- Jabeen erkidegoak
- Bulegoak
- Dendak

1^o HILABETEA DOAN

- Etxebizitzak
- Ostalaritza
- Elkarte gastronomikoak

-15% DESKONTUA

*Lehen fakturan aplikatzeko diren sartapenak, bezero berrieztzat bakarrik.

DEITU ORAIN ETA LORTU ZURE AURREKONTUA

24 ORDU BAINO GUTXIAGOAN !!!



600 25 02 87

limpiezascarcia@yahoo.com





LAGUNAK
colchoneria textil hogar

ZERBITZU BERRIA!

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK
Egunez: 09:00-22:00
Iluntzean: 20:00-22:00
Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

16 BARIKUA	17 ZAPATUA	18 DOMEKA	19 ASTELEHENA	20 MARTITZENA	21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti Arriola	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean -	Iluntzean -	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gabez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Martxoan hildakoak

- **Carmen Quintela Seoane**
87 urte, martxoak 4
- **Julian Jorquera Manzanares**
96 urte, martxoak 4
- **Ana Maria Azpiazu Unamunzaga**
72 urte, martxoak 7
- **Jose Maria Arruti Urbieta**
85 urte, martxoak 8
- **Maria Luisa Sangrador Epelde**
72 urte, martxoak 9
- **Maria Cruz Zuazubizkar Goenaga**
89 urte, martxoak 9
- **Consuelo Bonal Sanchez**
76 urte, martxoak 10
- **Sabina Arrieta Etxaniz**
96 urte, martxoak 10
- **Arantza Iriondo Garate**
85 urte, martxoak 20
- **Maria Pilar Intxausti Muguruza**
89 urte, martxoak 26
- **Maria Jesus Apaolaza Epelde**
63 urte, martxoak 30
- **Manuel Ramirez Diez**
84 urte, martxoak 31

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.





Iosu Juaristi



Iñigo Otaño



Behin irakurri nuen batez ere umetan daukagula hutsari begira egoteko ahalmena: infinitura baino are urrunago eramaten gaituen puntu batera begira egon gaitezke denbora luzez, pentsamenduek ere geure buruarekin bat egiten duten espazio horretan. Hori bezala, txikitan ditugun gaitasun asko denborarekin desagertzen dira edo ahazten zaizkigu. Beste adibide bat, esaterako, edozein lekutan eta egoeratan, asperdura borrokatzeko jolasen bat asmatzeko gaitasuna da.

Oraindik gogoan dut nola umetan hondarrezko harresiak egiten genituen hondartzan itsasgora baino pixka bat lehenago eta gotorleku txikiak osatzen genituen harresi haiekin. Ondoren, gotorlekuaren erdian eseri eta begira gelditzen ginen, itsasoa

noiz etorriko. Urak gotorlekua inguratu bai, baina denbora apur batean behintzat erdira sartzea lortzen ez bazuen, izugarrizko lorpena zen, nahiz eta azkenean, urak harresia gainditu eta gotorlekua ezinbestean irensten zuen beti. Bainujantzia hondarrez beteta, itsasoan bainua hartzeko ordua zen hura.

Umetan eraikitzen hasten garen harresi bat bezalakoa da memoria. Poliki-poliki pilatuz joaten diren tamaina eta forma desberdinetako harriek osatzen dute. Sendoak dira batzuk, betirako tinko hor barruan irauten dutenak. Txikiak eta hauskorak beste asko, erraz ahazten ditugunak. Ederrak, itsusiak, desatseginak, ahaztezinak... denetarik dago. Baina hautsita daude gehienak, beti falta zaie zatiren bat, erpin edo izkinaren bat. Bata bestearen gainean metatuta, batek daki zein neurriraino konpondu eta osatu dituen geure buruak, benetan gertatu zena itxuraldatzeraino askotan.

“Umetan eraikitzen hasten garen harresi bat bezalakoa da memoria”



Jose Mir Agirre

2021eko apirilaren 4an hil zen, 72 urte zituela.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

***Zaila da onartzea
inoiz ez zaitugula berriro ikusiko.
Hala ere, Oier, bizi garen bitartean,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

***Elkarrekin sortutako ezerk hautsi ez dezala,
gaur gurekin ez egon arren,
izarretan baitaude igarotako momentu,
emandako muxu eta esandako hitz guztiak.***

Amama Maite, Juanjo eta Marian,
Maite eta Aitor, Iñaki, Igor, Jon eta June



EXPRESS ESKAINTZAK!

LG 43UN80006LC TELEBISTA



- Smart TV 4K, IA eta 1780ra arteko ikusmen-angelua duen IPS panelarekin.
- HDR10 Pro eta HLG programekin bateragarria: gozatu zure etxeko zine-esperientziak.
- Surround soinua, 20 W-eko potentzia duen esperientzia inguratzailearekin.
- SmartTV webOS5.0 sistema eragilea IArekin (UL Cybersecurityk ziurtatua): LG ThinQ AI, Googleren laguntzailea, Alexa duena.
- 10 biteko Quad Core prozesadore adimenduna.
- HDMI 2.0, usb 2.0, Bluetooth 5.0, LAN RJ45, Wifi eta Magic Control agintzarekin hobetutako konektibitatea.



429 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dandako prezioak. Produktuak agortu arte.



ZOZKETA!



688 634 044

Datorren barikuan Herriko Antzokian izango den 'SIMPLICISSIMUS KABARET' antzezlanerako **sarrera bikoitza** zozkatuko dugu!

Bidali zure izen-abizenak 'simplicissimus' hitza zehaztuta, **APIRILAREN 20rako WHATSAPP BIDEZ**. Jasotako izen guztien artean egingo dugu zozketa.

